

Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerraren akta

2015eko abenduaren 10ean, 18:30etik 20:10era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

Legazpi Pariseko klima-aldaketari buruzko goi-bileran
Gure gogoeta eta ekarpena udalerrri gisa



United nations conference
on climate change
COP21/CMP11



Gaur, Legazpiko Agenda 21eko Foroan, Parisekin eta hiri hartan ospatzen ari den **klima-aldaketari** buruzko goi-bilerarekin "lotu" gara. Zertarako?

Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko gure konpromisoa **partekatu eta batzeko**.

Ildo berean dagoeneko gure udalerrian egin dugun eta egiten duguna **aitortu eta ospatzeko**.

Erronkaren konplexutasunari eta herritarrok dugun erantzukizunari buruz **hitz egin eta hausnartzeko**

Egungo eta nahitaezko gaia, 2015. urtea tailer interesgarri, hezigarri eta aberasgarri batekin bukatzeko.

1. Eskerrik asko parte hartu duen taldeari

Tailerrez tailer, partekatzen ditugun gaiak eta proposamenak bertan parte hartzen dugunok elikatzen ditugu; eta elkarrekin urtetik urtera ezaguera, esperientzia eta ibilbidea metatzen duen espazioa sortzen dugu. Beraz, ...

Milesker bakoitzari eta guztioi!

Lucia Areizaga – Montse Vallejo – Mari Jose Cantero – Arantza Arizmendi – Floren Gutierrez – Monica Monteagudo – Kepa Urzelai (zinegotzia) - Oscar Valbuena (zinegotzia) – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Maite Odriozola – Juan Carlos Agirre - Pedro Agirre – Gorka Inurrategi (zinegotzia) – Eric Galvez (zinegotzia) – Koldobike Olabide (alkatea) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen arloko teknikaria) – Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Segidan, gaurko gaia aztertzeari ekingo diogu.

2. Legazpi Pariseko klima-aldaketari buruzko goi-bileran

Dagoeneko ez dago zalantzarik: benetan aldatzen ari da klima

Ez dakigu hemendik gertu atera diren argazkietan ikus dezakeguna, klima-aldaketaren ondorio zuzena den edo ez.



Zarautz



Martutene



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Hala ere, Inma Hernandez teknikariak adierazi digunaren arabera, dagoeneko ziurra da klima aldatzen ari dela; eta, ustez, gizakiaren esku hartzearen ondorioz, aldaketa areagotzen ari da:

Sistema klimatikoaren berotzea nabaria da eta antzemandako aldaketa askok ez dute aurrekaririk izan azkeneko hamarkadetatik milurtekoetara: atmosfera eta ozeanoa berotu egin dira, elur eta izotz bolumenak gutxiagotu egin dira, itsas mailak gora egin du eta berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak igo egin dira.

Berotegi-efektuko etengabeko aireratzeek berotze handiagoa eragingo dute eta aldaketa berriak ekarriko dituzte sistema klimatikoaren osagai guztietan. Klimaren aldaketa geldiarazteko, nahitaezkoa izango da modu nabarmenean eta jarraituan berotegi-efektuko gasen aireratzeak murriztea.

Klima-aldaketari buruz Adituak diren gobernu arteko Taldearen Ebaluazio-txostenaren laburpena. 2013

Klimaren aldaketa errealitatea bada, zeintzuk izan daitezke haren ondorioak? Maila zientifikoan dagoeneko aipatu dira **aurreikusitako ondorio batzuk**:

- Puntako fenomenoek maiztasun eta gogortasun handiagoa: uholdeak, bero-bolada luzeak,...
- Aldaketak euri-erregimenean: euri-erauntsiak, prezipitazio global gutxiago. Mende bukaerarako % 15 eta 20 gutxituko dira euriek. Arazoak ur-horniduran.
- Neguan tenperatura minimoen eta udan tenperatura maximoen igoera.
- XXI. mendearen bukaerarako itsas mailak gora egingo du 29-49 zentimetrotan. Itsasoko uraren azidotzea eta berotzea.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorean eragin kontrajarriak: labore batzuen produktibitatearen igoera (neguko garia, mahatsa,...), ardoen kalitate eskasagoa, larretan belar gutxiago,...
- Eragina baso-sektorean: baso autoktonoa desagertu eta Europaren iparraldera higituko litzateke.
- Osasuna: arnasteko arazoak, alergia,...

Eta, batik bat, **berehala esku hartu beharra** dagoela esaten ari dira. Datuak ikusita eta dagoen informazioa aintzat hartuta, klima-aldaketaren erronkak estrategia bikoitza eskatzen du:

Arindu

CO₂ eta berotegi-efektuko beste gas batzuk **gutxiago** aineratzea



Egokitu

Gas-aineratzeak saihestu arren, klima-aldaketa martxan dago eta **haren ondorioetara egokitu behar** dugu

Testuinguru horretan, nola dago Legazpi klima-aldaketaren aurrean?

Gure udalerrriak badu ibilbide bat eta badu konpromiso irmo eta aitortua.

Eta baditu erantzun beharreko **erronka berriak**

Zehazki, eta atzera begiratu, Legazpi joan den 2001ean hartu zuen iraunkortasunarekiko konpromisoa Tokiko Agenda 21eko lehenengo Plana egin zuenean; orduetik hona **hainbat mugarri** eman dira, horietako batzuk klima-aldaketarekin zuzenean zerikusia dutenak.

- 2001 – Tokiko Agenda 21eko lehenengo plana.
- 2005 – Tokiko Agenda 21eko bigarren plana.
- 2008 – Tokiko Agenda 21eko hirugarren plana.
- 2008 - Mugikortasun Iraunkorreko Plana.
- 2008 – Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Ekintza-plana.
- 2009 - Klima-aldaketaren aurka egiteko Ordenantza.
- 2010 – Klima-aldaketaren aurka egiteko udal programa.
- 2013 – "Alkateen itunerantz" izeneko ekimena sinatu zen.

Udalerrriak hartutako konpromisoak eta egindako ahaleginak ondorioak izan ditu. Zehatz-mehatz:

Legazpiren ahaleginak emaitzak izan ditu dagoeneko


Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko 2008ko Ekintza-planak honako helburuak jaso zituen:

- urtetik urtera gora egiten zuten CO₂ aireratzeen igoeraren bilakaera iraultzea.
- 2010-2014 epealdiko CO₂ko aireratzeen batez bestekoak 45.300 tona ez gainditzea.

Erronka horren aurrean, azkeneko urteotan Legazpiko Udalak ekintza-lerro garrantzitsuak garatu ditu eremu desberdinetan: energia, mugikortasuna, ... Eta **emaitzak oso positiboak izan dira**:

- Azkeneko ekitaldia neurtzea falta bazaigu ere, CO₂ko aireratzeen batez bestekoa 42.900 tonatan dago.
- Bilakaerari erreparatuz:


	2008	2013
Legazpin, CO ₂ e aireratzeak biztanleko (industria kanpoan utzita, Udalak ez duelako hor esku hartzeko tarterik)	5,4 tCO ₂ e/legazpiarreko	4,7 tCO ₂ e/legazpiarreko
Legazpin, CO ₂ e aireratze totalak biztanleko	17,7 tCO ₂ e/legazpiarreko	7,2 tCO ₂ e/legazpiarreko



Legazpiren ahaleginak emaitzak izan ditu dagoeneko

- Sektoreka, 2013ko datuen arabera, garraioa da isurtze-iturri garrantzitsuenak, eta industria ondoren.

Emisiones GEI del municipio por sector



Nola baloratzen ditugu datuak?

- “Bilakaeraren datuak positiboak dira; eta baliteke, krisialdiak eragina izatea horretan. Orain, krisialdia gainditu ondoren, ikusi egin beharko da zer gertatzen den.”
- “Euskadiko Autonomia Erkidegoko beste udalerriekiko, nola gaude Legazpin?” Inma Hernandez teknikariak Legazpi erdian dagoela adierazi du.

Beraz, **balorazioa positiboa da baina aurrera jarraitu behar dugu:**

- Alde batetik, **gas-aireratzeak murrizten** jarraitu behar dugu, Legazpiren errealitatetik eta aukeretatik abiatuz, iturri nagusietan esku hartzen saiatuz.
- Eta bestetik, klima aldaketara **egokitzeko prestatu behar dugu**. Legazpik, Euskadiren antzera, erresiliente izan beharko du –hau da, klima-aldaketak eragingo duen inpaktua jasateko eta hari egokitzeko gaitasuna izan beharko du–. Horretarako, Udalak klima-aldaketara egokitzeko udal programa egingo du 2016an.

Legazpik klima-aldaketaren aurka borrokatzeko hartu duen konpromisoak errekonozimendua jaso du Pariseko goi-bileran. Zorionak!



Orain arte azaldu dugun ibilbidearen baitan, eta klima-aldaketaren aurka egiteko ekintza finkatzeko xedearekin, Legazpiko Udalak **“Compact of Mayors”** izeneko ekimena sinatu du 2015ean.

Zertan datza **“Compact of Mayors”**? Ekimen horren baitan Udalek klima-aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitzeko borondatezko konpromisoak eskuratuko dituzte eta aurrerapenen berri emango dute, esperientzien truketzea bultzatuz.

Koldobike Olabide Legazpiko alkate andreak, harrotasunez eta erantzukizunez partekatu du Foroarekin Pariseko goi-bilerara egin duen bidaiari eta klima-aldaketaren goi-bileran txertatu den Compact of Mayors ekimeneko kideen topaketan egotearen esperientzia.

Legazpiren kasuan, ekimena sinatzeak 2001etik hona egin den lanaren errekonozimendua ekarri du; horrezaz gain, herri mailan klima-aldaketaren aurka borrokatzen jarraitzeko konpromiso berri bat eskuratzen dela erakusten du.

Horrela, gure udalerriak bat egiten du mundu-sare baten baitan klima-aldaketaren aurka borrokatuko duten hamar euskal udalerriekin –Amurrio, Gasteiz, Areatza, Balmaseda, Bilbo, Durango, Donostia, Tolosa eta Errenteria–.

Eta azpimarratu beharreko datu bat: Udalerri batek, Compact of Mayors ekimena sinatzean, hasierako ebaluazioa gainditu behar du. Horrela, 10 euskal udalerriek kalifikazio gorenena lortu dute.

Horrek guztiak, zer esaten digu Foroko kideoi?

Ibilbidea solasaldi-elkarrizketa atsegin batekin osatu dugu, bidezko merkataritzako turroi ekologiko gozoak dastatuz.

Foroaren
iritziak,
proposamenak,
gogoetak

- “**Zorionak! Aurrerabideak** agente, pertsona eta borondate **askori esker** ematen direlako: Udalari, lerro estrategikoei (energia, mugikortasuna,...) heltzeko konpromisoa hartu duelako; Inmari lan teknikoa egin duelako; Foroari, iraunkortasunarekiko Legazpiren konpromisoa bultzatu duelako;...”
- “Orain arte **lan handi egin da**. Eta inportantea da adieraztea, gizarteak, legazpiarrik, enpresak,... lan hori ezagutzen eta onartzen hasi direla.”
- “Aurrerabide eta goi-bilerak gora behera, ni ezkorra nahiz gai honetan interes asko daudela ikusten dudalako. Hala ere, **klima-aldaketarena ez da zalantzan jartzen** eta hori positiboa da.”
- “Hemendik aurrera **erronka argia da**: lehentasunezko eremu edo sektoreetan fokalizatzen jarraitu behar dugu –garraioa, mugikortasun iraunkorreko planaren eguneratzea, eta baita industria mailan ere, zailagoa bada ere–.
 - Adibidez, enpresetan, ekosistema industrialen kontzeptua aplikatzearena esploratu daiteke? (gai horiek dagoeneko aztertzen ari dira Euskadiko Autonomia Erkidegoaren mailan baina korapilatsuak dira eta agian eskala handiagoa eskatzen dute).

Eta gauza garrantzitsua: legazpiarrei argi eta garbi adierazi behar diegu gure ekintzek badutela eragina klima-aldaketan; eta gure erantzukizunetik jardun behar dugu, agian balentria eta erabakitasun handiagoarekin. Heziketa kontua ere bada.

Modu horretan, herrialde mailan Legazpik trakzio-lanak egiten jarraituko du –erreferentea da beste udalerrri askorentzako–.”

- “Gogoeta hori nire etxera eramaten badut, zer egin dezaket nik? Mamira joanez, errezeta erraza da: **Klima-aldaketaren aurka borrokatu nahi baduzu, gutxiago kontsumitu.** ”
- “Gogoeta: Txinak gaur egun duen kutsadura-maila izan behar al dugu, zerbait egiten hasteko?”.

3. Eta bukatzeko, bideo bat, aipu bat eta berri bat

Federico Mayor Zaragozaren bideoa

Legazpiko Ingurugelako Edurne Huesak adierazi digunaren arabera, azaroaren 26tik 28ra Jasangarritasunerako Hezkuntzako Euskadiko IV. Jardunaldiak ospatu ziren Bilbon.

Federico Mayor Zaragozak bideo batekin hartu zuen jardunaldietan parte eta interesgarria iruditu zaigu bideo hori partekatzea. Mezu askoren artean, honako hau dio:

“Bihar berandu izan daiteke.

Parisen izan den goi-bilera bezalakoak oso ondo daude baina gero garaiz egin behar dira esku hartzeak.

Zer utzi behar diegu gure ondorengoei?”

Lotura honetan ikus dezakezue:

<https://drive.google.com/file/d/0B-OKwAhAKfyPdXpDRHUyS2tRbGs/view?pli=1>



Aipu bat: 2016an Bilbon Hiri eta Herri iraunkorren Europako 8. Biltzarra ospatuko da

Adi egongo gara; izan ere, jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea-Udalsarea 21eko kide den aldetik, Legazpi modu aktiboan hartuko du bertan parte.

Informazio gehiago:

<http://conferences.sustainablecities.eu/basquecountry2016/es/>

Berri horrek hondakinen gaia aztertu zuen azaroko Foroaren tailerrarekin du zerikusia

Joan den azaroaren 12ko Foroaren tailerrean hondakinei buruz eta gaikako bilketari buruz hitz egin genuen. Egin ziren proposamenen artean honako hau azpimarratu nahi dugu: ontzian bertan argi eta garbi adierazi beharko litzateke (piktograma erraz eta ulergarrien bidez) zein edukiontzira botu behar den.

Tira ba,... berri onak ditugu! Edurne Huesak esan digu, irakurri duenaren arabera Ecoembes enpresa aukera hori lantzen ari dela.

Nuevo símbolo para reciclar y evitar errores

Un nuevo símbolo ayudará a los ciudadanos a identificar el contenedor donde deben depositarse los envases para su reciclaje

Por ALEX FERNÁNDEZ MUERZA | 2 de diciembre de 2015

Email Meneame 0 Compartir Share 46 Tweet 29 Google + 4



Los consumidores están cada vez más concienciados para **reciclar**, pero a veces tienen dudas y no lo hacen de manera correcta. Para facilitar esta importante labor ambiental, se ha lanzado un **nuevo símbolo para etiquetar los envases** según el contenedor donde se tienen que depositar. Este artículo presenta el **nuevo símbolo de reciclaje** y **explica en qué porcentaje nos equivocamos al reciclar** y **por qué es importante evitar los residuos impropios**.



Al contenedor Azul
Envases de
papel y cartón



Al contenedor Amarillo
Envases de plástico,
envases metálicos y briks



Al contenedor Verde
Envases de
vidrio

Imagen: Ecoembes

4. Eta orain bai... amaiera emango diogu urteari. ¡2016ra arte!

Atsegina izan da 2015. urtea Foroarekin partekatzea; ederra izan da, halaber, aldaketa eta erronka berriak ekarri dituen urtera egokitzea elkarrekin eta malgutasunez. Horrela da bizitza eta horrela aldatzen da Foroa ere.

2016an bide berriak izango ditugu aurkitzeko eta gozatzeko. Beraz, neguko solstizioarekin energiak berrituko ditugu, jaietan ongi pasatuko dugu eta...

¡Zain izango gaituzue 2016an!

Mila, mila esker!

